



**Arartekoaren 2013ko azaroaren 29ko ebazpena. Horren bidez, EHUri gomendatu zaio Euskal Herriko Unibertsitateko lan kontratudun irakasle eta ikertzaileen II. hitzarmen kolektiboaren 32.4. artikulua aldaketa sustatu dezala.**

### Aurrekariak

1. Erakunde honetan EHUri atxikita dagoen ikertzaile baten kexa jaso zen. Pertsona hori, Ikerkuntzari buruzko Estatu Idazkaritzak ikertzaileentzako doktoretza aurreko prestakuntza laguntzak emate aldera iragarritako 2010eko deialdiaren testuinguruan, laguntza baten onuraduna da.

Interesdun horren kexak, bere soldata-orrian ageri den ordainketaren zenbatekoaren esleipenean antzemandako akatsari lotutako alderdi jakin bat aipatzeaz gain, beste ikertzaile batzuekin alderatuz pairatzen duen tratu diskriminatzailea dauka hizpide. Izan ere, EHUri atxikita dauden beste ikertzaile batzuek unibertsitateak berak edo Eusko Jaurlaritzak ematen dituzten laguntzez gozatzen dute.

2. Gure esku-hartzea bideratzeko asmoz, erakunde honek lankidetzara eskatu zien unibertsitateko arduradunei. Eskaera horri erantzunez, EHUko idazkari nagusiak txosten bat igorri zigun eta, bertan, zera azaltzen da:

*"1. El régimen retributivo del personal investigador en formación en fase de contrato se encuentra contemplado en el artículo 32.4 del Convenio Colectivo del personal laboral docente e investigador de la UPV/EHU (...). Este convenio permanece hoy día prorrogado.*

*El artículo 32.4 señala que "Las retribuciones del personal investigador en formación que se encuentre en los años tercero y cuarto desde la concesión de la ayuda de investigación, en la modalidad de trabajo en formación, serán las establecidas en la correspondiente convocatoria. En el caso de la convocatoria de ayudas de este tipo que realiza la UPV/EHU las retribuciones correspondientes a los años tercero y cuarto se equiparán a las retribuciones del personal investigador en formación del Gobierno Vasco."*

*En todos estos casos, por tanto, es la convocatoria a la formación la que marca la cuantía de la retribución. A este respecto no es de extrañar que las convocatorias de la UPV/EHU equiparen sus cuantías a las del Gobierno Vasco ya que, ambas sitúan su origen financiero en el mismo presupuesto para la Comunidad Autónoma Vasca.*

2. *Tras el proceso electoral que culminó en la reciente renovación en su cargo del Rector y consiguiente formación de su Equipo de Dirección, el contenido del Convenio prorrogado se encuentra en una fase de debate interno que se materializará, en su momento, en la negociación de un nuevo Convenio Colectivo que venga a sustituir al actualmente vigente. A este respecto*



*debemos destacar que se trata de una situación compleja que afecta a diferentes áreas y servicios de la Universidad y, más concretamente, de modo directo a los Vicerrectorados de Investigación y de Personal Docente e Investigador, así como a la Gerencia, dada su considerable transcendencia económica, y a la propia Secretaría General.*

3. *En todo caso, debe tenerse en cuenta la circunstancia de que la negociación colectiva del convenio se verá previsiblemente afectada por el desarrollo de lo dispuesto en la disposición adicional primera de la Ley 14/2011, de 1 de Junio, de la Ciencia. A saber, la disposición adicional primera de la Ley de la Ciencia encomienda al Gobierno del Estado la elaboración, antes de finalizar este año, de un nuevo Estatuto del Personal Investigador en Formación que sustituya al vigente aprobado por R.D. 63/2006, de 27 de enero, lo que nos anuncia cambios relevantes en las figuras contempladas en el mismo, que incidirán necesariamente en el contenido del convenio colectivo que finalmente se adopte. Es por ello que la prudencia llama, por tanto, a esperar a negociar el convenio en su conjunto, una vez se conozca el nuevo Estatuto del Personal investigador que finalmente se adopte.”*

3. Interesdunari informazio horren berri eman genion baina berak planteamendu horrekin ados ez dagoela adierazi du. Gainera, bere kexaren oinarria azpimarratu nahi izan du aldezearen (unibertsitarioen defendatzailea) ebazpena gogora ekarriz. Ebazpen hori EHUko zentro bati atxikita dauden, prestakuntza jasotzen ari diren eta ikertzeko laguntza eman zietenetik hirugarren eta laugarren ikasturtean dauden ikertzaileen egoera juridikoari buruzkoa da eta, amaitzeko, EHUko lan kontratudun irakasle eta ikertzaileen II. hitzarmen kolektiboaren 32.4. artikulua aldatzeko gomendioa eman du.

## Gogoetak

### **1. Prestakuntza jasotzen duten ikertzaileen egoera juridikoa**

Prestakuntza jasotzen duten langile ikertzaileei buruzko estatutua onetsi duen 63/2006 Errege Dekretuak araubide juridiko bikoitza ezarri du langile horientzat.

Lehenengo bi urteetan langileak “beka” egoeran egongo dira eta xedea bekadunaren ikasketa eta prestakuntza prozesua erraztea izango da, geroago, aldiz, “kontratu” fasera pasako dira eta bertan, gehienez, hurrengo bi urteetan zehar egon ahalko dira.

Xedatutakoaren arabera, bigarren fase horretan prestakuntza jasotzen duten ikertzaileek lan-kontratu bat sinatuko dute dagokien organismo, zentro edo erakundearekin; izan ere, ulertu behar da euren jarduera azken horientzat probetxugarria dela. Kontratu horretan, laneko harreman baten berezko elementuek bat egingo dute, betiere, Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraiki.



## 2. Laneko harremana

Prestakuntza jasotzen duten langile ikertzaileen estatutuaren 8. artikulua modu zehatzagoan xedatu du hirugarren eta laugarren urteetan sinatu beharreko kontratua praktikaldiko lan-kontratua dela eta haren iraupena, luzapenak eta iraungipena Langileen Estatutuaren 11.1. artikuluan ezarritakoaren arabera izango direla.

Euskal Herriko Unibertsitateko lan kontratudun irakasle eta ikertzaileen II. hitzarmen kolektiboak aukera hori jorratu du eta ikertzaileen kontratuen barruan dauden irudien artean, prestakuntza jasotzen duten ikertzaileak gaineratu ditu.

Horri dagokionez, 25.1. artikulua zera ezarri du:

*“UPV/EHUK aldi baterako ikertzaileak kontratatu ahal izango ditu praktiketako lan kontratuarekin (1/1995 Errege Dekretu Legegileak, Langileen Estatutuaren testu bateratua onartzeko denak, 11.1 artikuluan zehaztutako lan kontratua) ondoko kasuetan:*

*(...)*

*b) Prestakuntza bidean dauden ikertzaileen kontratuak, baldin eta prestakuntzarako eta zientziaren eta teknikaren arloko espezializazioarako jarduerak garatzeko laguntza programen onuradun badira, eta kontratuok urtarilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretuak, Prestakuntza Bidean dauden Ikertzaileen Estatutua Onartzeko denak, zehaztutakoaren babesean egiten badira.”*

## 3. Ordainsariak

Hezkuntzako arduradunak Euskal Herriko Unibertsitateko lan kontratudun irakasle eta ikertzaileen II. hitzarmen kolektiboaren edukari lotu zaizkio kexa eragin duen egoera azaltzeko.

Agindu horren arabera:

*“Prestakuntza bidean dauden ikertzaileei dagokienez, ikerketarako laguntza eman zitzaienetik hirugarren eta laugarren urteetan dauden ordainsariak kasuan kasuko deialdian ezarritakoak izango dira. UPV/EHUK egiten dituen mota horretako laguntzen deialdien kasuan, hirugarren eta laugarren urteei dagozkien ordainsariak izango dira Eusko Jaurlaritzak prestakuntza bidean dauden ikertzaileentzat ezarritako ordainsarien parekoak.”*

Aldezleak emandako ebazpenean, berriz, 2010. urteko deialdian (Ikerkuntzako Giza Baliabideen Prestakuntza Programa Nazionalaren laguntzak emateko prozedura, Ikerketa Zientifiko, Garapen eta Teknologia Berrikuntzako Plan Nazionala 2008-2011 delakoaren testuinguruan; kexagilea deialdi horren baitan hautatua izan zen (*“laguntzaren iraupena 48 hilabetekoa izango da ikertzaile zentroan hasten denetik kontatzen hasita, eta denbora hori bi fasetan dagoela*



*banatuta: lehenengo aldia beka aldia da, eta onuradunak prestakuntza bidean dauden ikertzaileak dira; bigarren aldia praktiketako kontratuarena da, eta onuradunak ikertzaileak hartzen dituzten I + G zentroak dira") ezarritakoa oinarritzat hartu da defendatzeko praktikaldian dauden ikertzaileei dagokien ordainsaria, behin ezarrita, bakarra izan beharko litzatekeela egoera berean dauden ikertzaile guztientzat. Horrenbestez, horren arabera, prestakuntza bidean dauden ikertzaileei buruzko hitzarmen kolektiboaren 32.4. artikulua egungo idazketa gaitzetsi beharko litzateke lan-egoera berdinean dauden pertsonen artean, eta ordainsariei dagokienez, tratu desberdintasunik egon ez dadila, izan ere, pertsona horiek guztiek kontratu mota, kategoria eta dedikazio berbera daukate.*

#### 4. **Berdintasun printzipioa**

Negoiazio kolektiboaren eremuan berdintasunerako eskubidearen indarraldia eta eraginkortasuna hainbatetan aitortu da Konstituzio Auzitegian, beste testuinguru batzuetan irismen bera ez daukala egiaztatu den arren. Izan ere, harreman pribatuen eremuan –hitzarmen kolektiboa horren barruan dago- funtsezko eskubideak eta horien artean berdintasunerako eskubidea modu zehatzean aplikatu behar dira eta borondatearen autonomiaren printzipioan oinarritzen diren beste balio batzuekin bateragarriak izan behar dira.

Dena den, Goi Auzitegiaren arabera: *"...de todo lo dicho se sigue una conclusión principal: ni la autonomía colectiva puede, a través del producto normativo que de ella resulta, establecer un régimen diferenciado en las condiciones de trabajo sin justificación objetiva y sin la proporcionalidad que la medida diferenciadora debe poseer para resultar conforme al art. 14 CE, ni en ese juicio pueden marginarse las circunstancias concurrentes a las que hayan atendido los negociadores, siempre que resulten constitucionalmente admisibles"* (119/2002 zk.ko KAE – 2002\119 KAE).

Esku artean dugun kexak mahai gainean jarri duen eta eztabaidatu behar den kontua zehaztu eta aztertu ostean, argi dago Euskal Herriko Unibertsitateko lan kontratadun irakasle eta ikertzaileen II. hitzarmen kolektiboaren 32.4. artikulua egungo idazketak ordainsarien araubide ezberdina eragiten duela EHUri atxikita dauden eta prestakuntza bidean dauden ikertzaileen artean eta ezberdintasuna hautatuak izan diren laguntzen deialdiaren arabera izaten dela.

Beraz, egiaztatu behar dugu ordainsarrietan dauden ezberdintasun horiek justifikazio objektibo eta arrazoitua daukaten eta tratu desberdin horrek oinarria duen edo berdintasun printzipioaren exijentzien kontrakoa den.

Gure ikuspuntuari jarraiki, aldeziaren ebazpenak horren inguruan eman duen azalpena oso argigarria da. Bertan, azaltzen da ikertzailea "kontratu fasera" delakora pasatzen denean, egia esan, laguntzen onuradunak I + G zentroak direla (ikertzaileak horiei atxikita baitaude) eta ikertzaileek aldi baterako laneko





harremana hasten dutela praktikaldiko lan-kontratu baten bidez. Horregatik, horiek guztiek lotura eta dedikazio bera daukate unibertsitatearekiko, zein deialditan hautatuak izan diren alde batera utzita. 2010. urteko deialdiak berak xedatu zuen langile ikertzaileek, kontratuak iraun bitartean, eskubide berberak edukiko dituztela sinatutako lan-kontratuak barne hartzen dituen lan zein gizarte onura guztiei dagokienez.

Ikerkuntza, Garapen eta Berrikuntza arloko Estatu Idazkariaren azken ebazpenak, 2013. urteko deialdia onetsi duenak Ikerketa Zientifiko eta Tekniko eta Berrikuntzako Estatu mailako Plana 2013-2016 delakoaren testuinguruan, oso ondo islatu du aurreko hori; izan ere, laguntza halabarrez kontratatutako ikertzaileen soldata eta Gizarte Segurantzaren enpresako kuota batera finantzatzeko erabiliko dela baieztatu ondoren eta hori ezarritako gutxienekoak baino baxuagoa ezingo dela izan xedatu ondoren, zera ezarri du:

*“Kontratua egiten duen I+G zentroak emandako laguntza gainditzen duen eta kontratazioari lotuta dagoen edozein kostu gain hartu beharko du; kontratatutako ikertzaileen soldaten ordainsarien handitzearen ondoriozkoa bada; Gizarte Segurantzaren enpresako kuotaren handitzearen ondoriozkoa bada; aplikagarriak diren hitzarmen kolektiboetan ezarritako soldata-tauletan jasotako igoeren ondoriozkoa bada; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 21.d artikulua aplikazioaren ondoriozkoa bada; edo beste edozein inguruabarren ondoriozkoa bada.”*

Aurreko guztia aintzat hartuta, erakunde honen iritziz, ikertzaileen prestakuntzarako iragarritako deialdien arabera ematen diren laguntzak ezberdinak izatea ez da arrazoi nahikoa gaur egun ordainsarrietan dauden ezberdintasunak mantentzeko, EHUk ikertzaileak kontratatzen dituen unetik aurrera lotura eta dedikazioa berberak baitira eta sinatutako lan-kontratuari dagozkion laneko onurak ere berberak dira-eta.

5. Aurrekarien bigarren atalean aditzera eman dugun moduan, EHUko idazkari nagusiak egin duen txostenean azaltzen da luzatutako hitzarmenaren edukia barne eztabaida fasean dagoela eta, zuhurtasunez jardute aldera, hitzarmena osotasunean negoziatu arte itxaron behar dela, azkenean hautatzen den ikertzaileen Estatutu berria behin ezagututa.

Hala ere, gure ikuspegiari jarraiki, hitzarmena barne eztabaida fasean baldin badago, inguruabar hori aprobetxatu beharko litzateke aldaketa sustatzeko helburuarekin; izan ere, aldaketa beharrezkoa da baztertzaila den ordainsarien alderdi hori zuzentzeko, hori ez baita oztopo bat izan behar etorkizunean, Ikertzaileen Estatutua berriaz onesten denean, dagozkion egokitzapenak egin daitezten (zientziari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen lehenengo xedapen gehigarriak aipatutako estatutua egiteko konpromisoa xedatu du).





Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### GOMENDIOA

Beharrezkoak diren ekimenak abian jar ditzan Euskal Herriko Unibertsitateko lan kontratudun irakasle eta ikertzaileen II. hitzarmen kolektiboaren 32.4. artikulua egungo idazketaren aldaketa sustatze aldera.

